


BERRIAK BERRI

Anoetako
aldizkari informatiboa
81 zenb.
2023ko azaroa

ARIMEN GAUAREN TXINPARTA BERRIRO PIZTU ZEN GUREAN!



EUSKARAREN PILULA



“DIFERENTES” EZ DA BETI “EZBERDINAK”

Gaztelaniazko “diferentes” ez da beti “ezberdinak” izaten euskaraz, baina askotan gaizki erabiltzen dugu gaztelaniazko esanahia emanez.

Diferentes pueblos (=varios pueblos) = herri batzuk, zenbait herri.

Adibide okerra: **Gipuzkoako herri **desberdinetan** / **ezberdinetan** abian jarri dute udan saharar haurrak hartzeko egitasmoa.*

Adibide zuzena: *Gipuzkoako **zenbait herritan** / **herri batzuetan** abian jarri dute udan saharar haurrak hartzeko egitasmoa.*

• Pueblos **diferentes** (=de características diferentes) = herri desberdinak/ezberdinak, hau da, ez dira berdinak, ez dituzte ezaugarri berak.

Adibide zuzena: *Oso herri **desberdinetan** / **ezberdinetan** ibili gara uda honetan, bakoitzak bere xarma zuen.*

BIZTANLEAK

	EMAKUMEA	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
BIZTANLEAK (urriak 27)	1.018	1.068	2.086
JAIOTZAK (ekainaren 26tik urriaren 27ra)	Nayra, Nikole, Iera	Mustafa, Joel	5
HERIOTZAK (ekainaren 26tik urriaren 27ra)	Pilar, M ^a Carmen, M ^a Cruz, Evarista	Agustin, Marcelino	6

GAU BELTZA

Gau beltza

Udazkenetik negurako egun gero eta ilunagoen bueltan, erritu ezberdinak egin izan dira Europa osoan. Gau Beltza urriaren 31n ospatzen da Euskal Herrian eta ohitura zaharrak berreskuratuz, jaia berrasmatzen ari dira herriz herri.

Gurean ere badira kontakizunak, kalabazak edo arbiak hustu, aurpegi itxura eman, kandela txiki bat sartu eta bide bazterretan argiztuta jartzen zirenekoak; bizilagunak beldurtu eta hildakoen arimei bidea erakusteko jarriak.



Gaua, beldurra, gauetz lagunekin ateratzea, mozorroak... Gazteenentzat erakargarritasun handia duten elementuak bateratzen ditu jai honek.

Duela 3 urte berreskuratu genuen Anoetan gau beltzaren usadio zahar hau, eta iazko etenaldiaren ondoren, aurrean ere aukera izan genuen ospatzeko. Prestakuntza lanetan aritu ziren Udaletxeko Gazteria Saila, Ikastola eta Oin-herri herri hezitzaileak, besteak beste.

Horren harira, aurretik kalabazak hustu zizutzen gaztetxoek gaztelekuan, primerako giroan. Eta urriaren 31ko arratsaldean ederki gozatu zuten dotore apaindutako plazako estalpera inguratu zirenek, bertan antolatutako jarduerekin: ipuin kontaketa, abestiak, dantza, beldurrak erretzea, gaztaina jatea....

Xanduli manduli kikirriki....eman gaztainak guri!



EUSKARA

Euskara ikasteko talde bat eta Mintzalaguneko beste bat sortu dira Anoetan 2023-2024 ikasturtean

Euskara ikasteko taldea:

Anoetako Udala eskualdeko beste hainbat udal eta eragilerekin batera aritzen da elkar-lanean helduen euskalduntzea sustatzeko asmoz. Herrian bertan euskara ikasteko aukera izatea ezinbestekotzat jotzen dugu; horregatik parte hartzen dugu beti eskualdeko matrikulazio kanpainan, eta informazioa zabaltzen dugu herriko etxe guztietara.

Ikasturte honetan, zazpi ikasleko talde bat hasi da lanean Anoetan, liburutegi ondoko ikasketa gelan, eta Andoaingo AEK Euskaltegiko Ametzek emango ditu eskolak. Ikastaroak oinarritzko maila izango du (A2) eta asteazken eta ostiraletan elkartuko dira, 09:30etik 12:00etara.



Mintzalagun taldea:

Aurten ere, herritarren artean mintzapraktika egiteko aukera eskaini dugu Anoetan eta eskualde osoan, Tolosaldeko beste hainbat udal eta eragilerekin batera. Ekimen honen helburua da euskaraz hitz egiten duten pertsonak euskaraz egin nahi dutenekin elkartzea, as- tean behin gutxienez, ordu betez, paseoan, kafetegian, parkean... euskaraz aritzeko, euskaraz bizitzeko. Beraz, bi modutara parte har daiteke ekimenean, euskara praktikatzuz (bidelaria) eta euskara praktikatzen lagunduz (bidelaguna).

Bada, jada bikote bat elkartu dugu, bata Iru-rakoa eta bestea Anoetakoa. Aziza eta Gema astero geratzen dira euskaraz kontu-kontari aritzeko. Bejondeiela!



EUSKARAREN EGUNAREKIN LOTUTAKO JARDUERAK

AZAROAK 29

asteazkena

18:00
 📍 Udaletxeko pleno aretoa

Hitzaldia hizkuntz eskubideei buruz
 Behatokia eta Galtzaundiren eskutik.

ABENDUAK 2

larunbata

10:00-18:00
 📍 Tolosako Kultur Etxea

Gaitu eskualde mailako auzolan teknologikoa: ahotsen grabaketak, adimen artifizialeko tresnek euskaraz egin dezaten.
 Galtzaundik antolatuta

ABENDUAK 3

igandea

10:00-13:00
 📍 Herriko plaza

Jokai: euskal mitologiarekin lotutako jolasak

Arratsaldez
 📍 Plazako estalpea
 (edo auditorioa, eguraldiaren arabera)

Antzerkia: Orakulua, Lur Usabiagaren eskutik.



Orakulua antzezlanaren irudia

LIBURUTEGIA

NEGUKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera 16:30-19:30

Ostiraletan 11:00-13:30



LIBURU BERRIAK

Hemen daukazue liburutegian aurkituko dituzuen liburu berri batzuen gomendioak.

GOMENDIOAK

Helduentzat euskaraz:

- Maus (komikia) / Art Spiegelman
- Zomorrotu / Aintzane Usandizaga
- Lurraz beste / Garazi Arrula

Helduentzat gaztelaniaz:

- El viento conoce mi nombre / Isabel Allende
- El retrato de casada / Maggie O'Farrell
- La vida que nos separa / Chufo Lloréns

Gazteentzat:

- Luaren itzala / John Andueza
- Katuak jandakoa / Asel Luzurraga
- Ewok bat lorategian/ Pedro Ramos

Haurrentzat:

- Grufaloea / Julia Donaldson
- Anna Kopek 2 / Haritz Larrageta
- Martzelo itsua / Pello Añorga eta Maite Mutuberria



EKINTZAK

Urriaren 18an "Liburu bat, mundu bat" ipuin kontaketa izan genuen liburutegian. Haurrek abestu, ipuinak entzun eta eskulanak egin zituzten. Oso gustura egon ziren eta gainera oparitxo bat eraman zuten etxera!

GIZARTE ZERBITZUAK

Estimulazio tailerra berriro ere martxan

Anoetako Udaleko Gizarte-Zerbitzuen Sailak berriro ere estimulazio-tailerra jarri du martxan. Tailerra 65 urtetik gorako herritarrei zuzendua dago eta astean behin (ostegunetan) Alkartasuna Biltokiko lokalean egiten dute 18:00etatik 19:00etara. Ikastaroa urriketik abendura bitarte izango da. Arreta zein oroimena lantzeko ariketak, eskulanak eta irakurketa lantzeko ariketak egingo dituzte, besteak beste.

Izena emateko gizarte zerbitzuetan 09:00etatik 13:00era edo 943569213 telefonoan edo gizarte@anoeta.eus helbidean.

ANIMA ZAITEZ!



ZUK JAKITEA NAHI DUT... DOKUMENTUA

Gida hau Gipuzkoako Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordeak egin du, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentuaren laguntzarekin.

Dokumentu honek jarraibide errazak eskaintzen dizkio bai pertsonari, bai familiari, lagunei eta laguntzen dioten profesionaleri zer nahi duen jakiteko eta adierazteko.

Oso garrantzitsua da pertsonaren balioak, nahiak eta premiak entzutea eta errespetatzea, eta pertsonak berak erabakitzea bere bizitzari buruz. Besteek ez dute beragatik erabaki behar.

Aurkezpena

Zuk jakitea nahi dut...

Nire bizitzaren zainntza modu partekatuan planifikatzeko gida

Quiero que sepas...

Guía para planificar el cuidado de mi vida de manera compartida

Hizlaria: Olaia Arana

Gizarte langilea eta Etika Batzordeko kidea

Tokia:

**GELA
BALIOANITZA
LASARBE KALEA 1**

Eguna:

**ABENDUAK 13
ASTEAZKENA**

Ordua:

11:00etan

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



GAZTERIA



Aurtengo udara ere amaitu da, udaleku paregabeak izan ditugu ekintza desberdin ugariarekin: hondartzara irteera, uraren eguna, mozorroen eguna... Gainera, aurtengoan antzezlan berezia ere izan dugu, berarekin sukaldeko tresnak musika instrumentu bihurtu genituen.

Udalekuetako datuak erreparatuz, parte hartzaile asko izan ditugula esan daiteke, gainera genero aldetik oso parekatuak egon dira.



UDALEKUAK 2023 ANOETA

PARTE HARTZAILEAK (HAURRAK 3-11 URTE)				BEGIRALEAK			
NESKA	MUTILA	EZ BITARRA	GUZTIRA	NESKA	MUTILA	EZ BITARRA	GUZTIRA
51	46	0	97	5	2	0	7

Dagoeneko gaztelekua ere martxan dugu; hasiera bikaina eman diogu aurtengo ikasturteari, gazte berri ugari apuntatu da.

Gau beltzerako kalabazak hustu genituen, eta azaroan Xomorro Elkartek eskainitako zirku ikastaroarekin hasiko gara, bertan zirku hainbat diziplina ikasteko zein probatzeko aukera izango dugu.



LOATZO

Ikasturte berrian ere gogoz eta ilusioz musikaren doinuak zabalduz lau haizetara!



Dagoeneko, ikasturtea hasi eta Euskal Jai egunean aukera izan genuen Anoetako trikitilari eta panderojoleen doinuaz gozatzeko.

Aurrera doa ikasturtea eta oraingoan, Santa Zezilia aitzaki hartuta, azaroaren 19-24 astean LOATZO MUSIKA ESKOLAK MUSIKA ASTEA antolatu du.

Anoetan, azaroaren 24an GANBARA emanaldi bat entzuteko aukera izango du auditoriora 18:30ean hurbiltzen den orok.

Ganbara musika, tresna berdin edo ezberdinek elkarrekin jotzeari deitzen zaio. Normalean 2-4 pertsonaz osaturikoak izaten dira.

Anoetarrez gain, beste herrietako ikasleek ere hartuko dute parte. Denon artean, musika bitarte, une goxoak eskaintzea du helburu emanaldi honek.

Aurten, tailerretako ikasleak (7 urte bitartekoak) gonbidatu bereziak izatea nahiko genuke emanaldi hauetan, entzutearen garrantzia landu, soinu eta doinu ezberdinen koloreak berezi eta tresnek norberaren barruan sentiarazten dien bizipena adierazteko momentua izatea nahiko genuke.

Gabonetako emanaldietan ere izango dugu aukera txikiaren ahots eta doinuez gozatzeko.

Bitartean, jaso ezazue emanaldiaz gozatzeko gonbidapena!

Musikak sortu dezala mundu berri baten melodia!

ANOETAKO HERRI IKASTOLA

Anoetako Herri Ikastolaren egitura berria



Anoetako Herri Ikastolak aspaldian egin zuen kooperatibaren aldeko apustua. 70. hamarkadaren amaieran antolaketa egokien gisa jo zuten kooperatiba, hain zuzen ere guraso kooperatiba, irabazi asmorik gabekoa. Anoetako Herri Ikastola, ekimenetik sortua eta herritarren zerbitzura izaki, handik urte batzuetara herri onura izendapena lortu zuen.

Badira hiru bat urte Ikastolaren izaera juridiko horrek egungo benetako Ikastolaren funtzionamenduari erantzuten zion ala ez eztabaidan jarri zela.

Ikastolako kide guztien artean hausnarketa prozesua ireki zen: egungo egitura juridikoa islatzen du gure errealitatea? Beste Ikastola askotan bezala langile eta udala izan daitezke bazkide? Barne antolaketak babesten du Anoetako Herri Ikastolaren geroa?

Garbi genuen Ikastola bitzita-proiektu modura ulertzen genuela, eta Ikastolak hiru zutabe nagusi dituela eta denak izan beharko

genukeela parte: guraso, langile eta Udala. Horregatik, 2021eko abenduan Batzar Orokorra Estatutu aldaketa egin eta Anoetako Herri Ikastola, guraso kooperatiba izatetik, Kooperatiba Integrala izatera pasatzeko erabakia hartu zuen.

lazko ikasturte amaieran jarri genuen martxan Ikastolako izaera juridiko berria, parte hartzean oinarritua dagoena; guraso, langile eta Udalaren partehartzean zehazki, hauen ordezkariak osatuko duelarik Kontseilu Errektorea (Organo Gorena).

Bestetik, Guraso Ordezkaritza Batzordean maila bakoitzeko guraso ordezkariak biltzen dira, bi hilabetez behin. Berrikuntza bezala, aurretik Ikastolak martxan zituen Batzordeak (Kirol, Euskara eta Euskal Kultura eta Pedagogia Batzordeak) gaur egun Ikastolako Komunitate osoari irekiak dira.

Denak gonbidatuta zaudete Batzorde hauetan parte-hartzera.

EUSKAL JAIA

Gora Euskal Jaia!



Erlearen eta erletik eratorritako produktuak izan dira aurtengo Euskal Jaiko gaia, eta erleekin lan egiten duten erlezainen lana balietsi dugu. Izan ere, egoera larrian daude animalia horiek, eta Lurraren, eta beraz, gizakien orekarako ezinbestekoak dira. Euskal Jai egunean aipatu bezala, gizakiok jaten ditugun elikagaien %75ak behar du intsektuek egindako polinizazioa, eta intsektuen polinizazioaren %80a egiten dute erleek.

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkizuegu Euskal Jaietan parte hartu zenuten herritar guztiei, azokako ekoizleen eta artisauen produktuak erosi zenituztenei eta egun ho-

riek aurrera atera zitezten lan egin zenuten guzti guztiei. Ondo egindakoak apuntatu ditugu, eta, jakina, baita gaizki egindakoak ere, hurrengo urtean are eta festa hobea antola dezagun. Esan beharrik ez dago Euskal Jai Batzordearen atea irekita dituzuela lan egin nahi duzuen guztientzat.

Jarrai dezagun urte osoan gertuko, sasoiko eta kalitatezko ekoizpena bultzatzen!

ANOETAKO EUSKAL JAI BATZORDEA



ANITZ DANTZA TALDEA

Dagoeneko martxan!



Gogotsu ekin diogu aurten ere Anitz Dantza Taldeko kideok ikasturte berriari. Urria heltzearekin batera martxan jarri ditugu dantzako klaseak eta hasi dugu, beraz, 2023-2024 ikasturtea.

Ez genuke aipatu gabe utzi nahi indartsu jarraitzen duela dantza taldeak. Aurtengoan 150 dantzaritik gora ditugu, 12 taldetan banatuta. Ez da zifra makala Anoeta bezelako herri batentzat. Alajaina!

Dantzari kopuru honek irakasle gehiagoren beharra ere ekarri du eta Izaro, Naroa eta Maddi elkartu zaizkigu beraien ilusio guztiarekin irakasle taldera. Ongi etorri!

Astero astero dantza berriak irakasten eta ikasten jarraituko dugu, eta ea noiz dugun herritar guztioi gure lanaren fruituak erakusteko aukera.

Besterik gabe, jarrai dezagun dantzarekin gozatzeko eta gozazten. **Gogoratu: dantzaten den herria ez da inoiz hilko!**



KUKUAK KANTUZ

Kantatzen duen herri bat ez da inoiz hilko!



Kantuz, abestiak ikasten ditugu, kantuz, ahotsa, belarria, memoria...lantzen saiatzen gara. Gure herriko abestien letren aberastasuna, historia... ondarea zaintzea eta herritarroi kantuak eskaintzea dira gure helburuak. Ondo pasatzeaz gain, noski.

Taldea irekita dago abestu nahi duen ororentzat. OSTEAGUNETAN arratsaldeko 19:00tan elkartzen gara gaztelekuan.

Gustuko duzula baina ahotsik ez duzula?

Gustuko duzula baina lotsatia zarela?

Hauxe da zure tokia! Inork ez zaitu epaituko, denon artean ttipi-ttapa ikasten ari gara eta lotsa galtzean, ahotsa duzula ikusiko duzu.

Animatu gurekin batera kantuan aritzera!!

Datorren abenduan emanaldiak izango ditugu. Gure berri izango duzue!!

GAZTE ASANBLADA



Gazte Asanbladan ere ikasturte berria martxan!

Gazte asanbladan ere hasi dugu 2023-2024 ikasturte politikoa, eta jada bi egitarau antolatu ditugu: Gazte Eguna eta Urrifest.

Urtero bezala, Gazte Egunarekin hasi dugu ikasturtea, belaunaldi berriari ongi etorria egiteko. Irailaren 2an sagardo dastaketarekin hasi genuen egitaraua; gaztetxean bazkaldu, eta herriko tabernetan poteatu genuen musikarekin. Gaztetxean afaldu eta gero, DJ Txekor-ek eta DJ Eo-k girotu zuten txirrisklas gaua.

Bestalde, ospatu berria dugu Urrifest. Aurten ere Euskal Herriko hainbat txokotako garagardo artisaua dastatzeko aukera izan dugu Anoetako plazan: Basabe (Legorreta), Izarhaitz (Azpeitia), Xorta (Erronkari) eta Kondaira (Mendabia). Bitartean, Arrixku taldea eta Zigor DZ ere izan genituen. Eskerrik asko egitarau hauetan parte hartu duzuenoi eta gerturatu zaretenoi!

Datorren urtean badugu zer ospatua, gaztetxeak 25 urte beteko baititu maiatzean; beraz, adi, aurrerago emango dugu eta gure asmoen berri! Hala ere, dena ez da festa, eta ikasturte honetan ere jarraituko dugu formakuntza politikoa lantzen, baita bestelako eskaintza kulturala antolatzen ere. Gaztetxeko ateak irekita edukiko dituzue!



MUGIMENDU FEMINISTA

Zaintza eskubide kolektiboaren alde, azaroaren 30ean kalera!

Euskal Herriko Mugimendu Feminista aspalditik salatzen ari zena azkartu zuen COVID19ak eragindako pandemiak, eta zaintza krisia azaleratu eta azkartu egin zen urte horietan. Egoera ikusita, Denon Bizitzak Erdigunean plataformak erabaki zuen 2023ko azaroaren 30ean **greba feminista orokorra** egitea **zaintza eskubide kolektiboaren alde**.

Urte hauetan, lehen pertsonan bizi izan ditugu **zerbitzu publikoen gainbeheraren eta pribatizazioaren ondorioak**. Zaintzarena sektore feminizatua da eta gainerako sektore feminizatueta bezala, **lan baldintzak oso prekarioak** dira. Horrek langileen bizitzetan ez ezik, erabiltzaileek jasotzen duten arretan ere sekulako eragina dauka.

2018ko eta 2019ko greba feministetako irakaspena jaso eta jauzi bat egingo dugu orain, eta gizonari ere borroka egun horretan parte hartzeko deia egiten dizuegu, betiere jakinda emakumeok izango dugula lidergotza. Hauek izango dira egun horretan kalera aterako ditugun aldarrikapen



nagusietako batzuk: zaintza zerbitzu publikoak indartzea, zaintza zerbitzuen pribatizazioarekin amaitzea, etxeko langile egoiliarren erregimena desgerraraztea edota Atzerritartasun Legea bertan behera uztea, besteak beste.

Azaroaren 30ean kalera!

Zaintza eskubide kolektiboa denontzat!

ANOETAKO MUGIMENDU FEMINISTA



EH SOZIALISTA



GREBA OROKOR FEMINISTA

Azaroak 30: denak manifestazioetara!

Gu hiltzen, bortxatzen eta zapaltzen jarraitzen dute. Aski da!

Klaseko feminismo iraultzailea altxatu!

2023a markak apurtzen ari da indarkeria matxistaren datuetan. Urtea amaitzeko hiru hilabete falta direnean, eraildako emakumeen kopurua 2022koaren parekoa da (49 krimen), eta bortxaketak %53,2 igo dira. Aldi berean, muturreko eskuina emakumeen eta LGTBI kolektiboaren aurkako diskurtso negazionista eta erreakzionarioa gogortzen ari da, eta mezu hori gure ikastetxeetan sartzen ari da.

Aski dela diogu. Ikasle Sindikatuak, Emakume Aske eta Borrokariok eta Ezker Iraultzaileak bat egiten dugu datorren azaroaren 30eko greba orokor feministarekin, gure bizitzako esparru guztietan kolpatzen gaituen matxismoari aurre egiteko; Voxeko faxisten aurka eta eskuin espainolaren eta Euskal eskuinaren aurka, PP eta EAJ, horiek baitira desberdintasun eta prekarietate basatia inposatzen diguten patronalaren, bankarien eta oligarkiaren ordezkariak.

Klaseko mugimendu feminista borrokariok behin eta berriz erakutsi dugu geldiezinak garela. Indartsu erantzun diegu gure erasotzaileei, sistema judizial patriarkalari eta 78ko erregimeneko indar polizialei. Eta baita horien aurrean amore eman eta belaunikatzen direnei ere, esaterako PSOE, 'Soilik Bai da Bai'



legea erreformatzea PPrekin eta toga janzen duten matxiruloekin batera bozkatu zuenean, onspenaren funtsezko oinarria ezabatuz gure aurkako sexu indarkeria salatzerakoan.

Emakume langileak borroka eredu izan gara Euskal Herrian eta Estatu osoan zehar garaile izan diren greba askotan. Ez gara ikusezinak, mundua eraldatzeko indar ahaltsua baizik. Eta argi gera dadila. Ez dugu onartuko gu hiltzen eta bortxatzen jarraitzea. Ondo dakigu geure indarretan eta zapalduen indarretan baino ezin garela fidatu sistema kapitalista honekin posatzen digun genero, klase, arraza eta nazio zapalkuntza eta indarkeriarekin amaitzeko.

Ez dago astirik alferrik galtzeko. Denak greba feministara! **Batu zaitetz eta eraiki gurekin klaseko feminismo borrokalaria:**

- **Indarkeria matxistarekin eta justizia patriarkalarekin amaitu.** Emakumeen aurkako bortxaketa eta eraso fisiko edo psikologiko guztien erantzuleei zigor ereduagarria ezartzea.
- **Zaintzak eskubidea dira!** Doako eta kalitatezko Zerbitzu publikoa haur-eskoletan, mendekotasunaren arretan, jantokietan, garbiketetan... Pribatizaziorik ez!
- **Prekarietaterik ez.** Enplegu eta soldata duinak. Lan erreforma desegin!
- **Abortu aske,** doako eta segururako benetako eskubidea osasun publikoan.

• **Gure gorpuak ez daude salgai!** Gure gorputzekin trafikatzan duten negozio lodiekin amaitu, prostituzioaren, alokairuko sabelen eta pornografiaren aurka. Atzerritartasun legegari ez!

• **Heziketa sexual inklusiboko irakasgaia orain!** Matxismoa, Eliza eta LGTB fobia gure ikasgeletatik kanpo! Kalitatezko hezkuntza publiko, euskaldun, doako eta laikoaren alde. EAEko hezkuntza lege berriaren proiektuaren aurka: euro bakar bat ere ez hezkuntza pribatu-itunpekoaren negoziatorako.

EZKER IRAULTZAILEA
EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

KIROLDEGIA

Aurten ere jo ta ke!

Hasi dira dagoeneko 2023-24 ikasturteko ikastaroak, beti bezala gogo eta indar handiz. Hasi da dantza eta gorputzaren zaintza!

Zure aukera, kiroldegia!

	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK
RITMIKA	13	1
CROSS TRAINING	16	8
CYCLING	8	0
TONIFIKAZIOA	60	0
ZUMBA	20	0



EH BILDU

Manifestazio
NazionalaAzaroak 18
Bilbo

ehbildu

NAZIOA
GARA.

Azaroaren 18an Bilbon nazioa garena aldarrikatuko dugu, espainiar Estatuan irekitzen den lurraldetasunaren inguruko eztabaidan Euskal Herria ere protagonista izan dadin. Arrazoiak ditugu kalera ateratzeko, gure nazioaren aldarrikapena egin eta dagokigun erabakitzeko eskubidea exijitzeko. Baina nazioa ez du aldarrikapenak berak soilik egiten, baizik eta izateko arrazoiak, elkartzen gaituzten sareek eta gure historiak. Musiak eta kantuek paper protagonista izan dute gure historian, kantua kultura baita, hizkuntza, transmisioa eta komunitatea ere bai.

Aldarrikapena ere bada kantua, noski, eta horrexegatik, euskal nazioa kantuz aldarrikatzeak zentzua dauka. Beraz, azaroaren 18an Bilbon elkartu eta elkarrekin abesteko deialdia egin nahi dugu. Ohiko mobilizazio bat izateaz gain, herri baten doinua munduratzeko ahalegina egin nahi dugu. Honetarako, Joxean Artzeren 1957ko poeman oinarritutako Mikel Laboraren 'Txoria, txori' kantatuko dugu, sekula egin ez den bezala eta inoiz entzun ez den bolumenean. Baionako festetan, futbol zelaietan, herriko festetan, hainbat tokitan kantatu eta kantatzen den euskal kantua da. Eta guk Autonomia kalean bildu nahi ditugun milaka herritarrek elkarrekin abestu dezagun bilatuko dugu.



ERREZETA

ARKUMEA KALABAZAREKIN

Osagaiak:

ARKUMEA:

- 100 g esneko arkume xehatu
- 25 g intxaur xehatu; tipula baten laurdena
- Koilaratxokada bat azukre beltz
- Olio; gatza
- 50 g gazta (ardi, behi)
- Arrautza gorringo bat

PUREA:

- 200 g kalabaza
- Olio; gatza
- Koilaratxokada laurden bat kanela ehotu
- Koilaratxokada laurden bat kumino ehotu

Prestaketa:

KALABAZA-PUREA:

1. Egosi kalabaza lurrunetan.
2. Puretu kanela, kumino eta olio zurrusta batekin batera.
3. Bota gatza.
4. Nahasi ongi.
5. Utzi.

PLATERA:

7. Jarri haragiaren nahasketa plater sakon batean.
8. Haragiaren gainean gazta-xaflak, gaztaren gainean kalabazapurea eta purearen gainean arrautza gorringo bat.
9. Labean 180º 5'.



**BERTAKOAK
BERTATIK**

**BASERRI BIZIAK
DENDA BIZIAK
HERRI BIZIAK**

ARKUMEA:

1. Gorritu tipula xehatua.
2. Bota haragia, azukrea eta gatza.
3. Nahasi. Kozinatu minutu batzuz.
4. Bota intxaurrek eta 2 koilarakada pure.
5. Nahasi.
6. Kozinatu minutu bat.



AZAROAK 25: INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO EGUNA

Elkarretaratzea 19:00etan Anoetako plazan



EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ



80 amandue

HELDUENTZAKO IPUINAK

Dorleta Kortazar

AZAROAK 26,
IGANDEA, 18:30
MIKELASAGASTI
AUDITORIOA
SARRERA LIBREA



Ametsak, desioak, lana eta tristurak mototsean kiribildu eta munduari irribarre egiten ikasi duten emakumeen istorioak dira hauek. Esku zailduak, sabel puztuak, begirada galduak, eta batez ere irribarrea begietan duten amandreak, amamak, amonak, amatxiak...